

## Kanalak:

Gure bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, web orrialde bat sortuko dugu eta bertan telefono zenbakia eta e-mail helbide bat ere eskainiko ditugu.

Hortaz, bezeroek internet edo telefono bidez gurekin komunikatzeko aukera izango dute, gehienbat adinekoak ez direlako internetarekin moldatzen eta haiek baitira gure erabiltzaileen ehuneko handi bat.

Arazoren bat balego, edukitako arazoa planteatzeko aukera edukiko lukete eta guk berriz, arazo horri irtenbide bat ematen saiatuko ginateke. Hortaz gain, telebista eta beste hainbat komunikabide erabiliko ditugu, eta horietan, gure telefono zenbakia eta web orria adieraziko ditugu.

Web orrialdean bezeroek, beraien iritzia emateko aukera izango dute. Beraien iritzia kontuan harturik, gure aplikazioan aldaketak egin genezake, produktua hobea eta erosoagoa izan dadin.